

Etxeko hondakinak eta haien murrizketa



Etxean sortzen ditugun hondakin asko erabilgarriak izan daitezke beste batzuentzat, beste produktu batzuk lortzeko lehengaiak izan daitezke, metal baliotsuak eduki ditzakete... Ez dira hondakinak, aberastasuna sortu dezaketen ondasunak baizik, "ekonomia zirkularraren" osagaiak, alegia. Haien erabilera etorkizuna izango da, eta oso balio handia dute.

Prebentzioa, balorizazioa eta ezabapena

Bizkaiko hondakinen kudeaketa 3 ardatz nagusitan dago oinarrituta: prebentzioa, balorizazioa eta ezabapena.

- **PREBENITZEA** = Botatzen ditugun hondakinen kopurua murriztea.
- **BALORIZATZEA** = Botatzen dugunaren balioa lortzea eta, horretarako, berrerabiltzea, birziklatzea, energia erdiestea...
- **EZABATZEA**= Materialak behin betiko desagertzea eta, horretarako, ekoizpen-ziklotik ateratzea, hau da, kontrolpeko zabortegietara eramatea.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral


AGENDA 2030



 **GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**



Garapen iraunkorrak gaur egungo premiei aurre egin behar die etorkizuneko belaunaldiek euren premiak estaltzeko daukaten gaitasuna arriskuan jarri gabe.



Etxeko hondakinak

ZER DIRA ETXEKO HONDAKINAK?

3 hondakin-multzo handi daude: etxeko hondakinak (EH), merkataritzakoak eta industriakoak. Etxeko jardueraren ondorioz etxean bertan sortzen direnak izango dira etxeko hondakinak. Bestetik, saltegietan, industrietan, bide publikoan... sortutakoak izango dira besteak.



0,95 Kg/
biztanle/egun

Bizkaian, biztanleek 0,95na kilo zabor sortzen dugu eguneko.

HONDAKIN-MOTAK


ZABOR-POLTSA

Hona hemen etxeko hondakinen osagaiak: materia organikoa (janari-hondarrak eta lorezaintzako jarduerak), papera eta kartoia, ontzi arinak (plastikoak eta brikak), ontziak ez diren plastikoak, beira, metalak (aluminioa, latorria...), hondakin arriskutsuak (pilak, sendagaiak, pinturak...), nahastuak (oihalak, egurra eta larrua), tamaina handikoak (etxetresna elektrikoak, kautxua, kableak...) eta inerteak (obretako hondakinak, lurrak, errautsak, zeramikak...).

Zer botatzen dugu zabor-poltsara? Gure zeregina ere bada hondakinak behar bezala kudeatzea.

Birziklatzen duguna eta birziklatu dezakeguna

Zaborra hondakina edo baliabidea izan daiteke. Zure esku dago. Keinu txikiaren bitartez, badugu etxean sortzen ditugun hondakinen helmuga aldatzerik. Birziklatzeko zer aukera dituzun galdetu udaletxean!



Urratsez urrats, bide onetik

1 KONTSUMO ARDURATSUA

Geure kontsumo-ohituretan aldaketa txikiak eginez gero, ziur sortzen ditugun etxeko hondakinen kopurua murriztu ahal izango dugula.



5 MINUTU
HAUSNARTZEKO

Badakit benetan nolako arazoak sortzen dituzten hondakinek?

Zer egin dezaket hau hobetzeko?

EKINTZA TXIKIEK EMAITZA
HANDIAK IZAN DITZAKETE.

Zer egin dezaket etxean?

- Hondakinen kopurua MURRIZTU. Horretarako:
 - Ahal dela, ontziak BERRERABILI beti.
 - JANARIA etxean PRESTATU, gero eta ohikoa den janari aurreprestatua eta ontziratua ez erosteko.
- KONTU HANDIZ ibili etxeko hondakin arriskutsuak (pilak, kimikoak, sendagaiak...) bilketa-gune egokietan uzteko orduan.
- EZ EROSI beharrezkoak ez diren bilgarri asko daramatzaten produktu ontziratuak.
- Bizitza tekniko luzeagoa izan dezakeen guztia KONPONDU.
- Behar besteko aukerei eta urratsei buruzko informazioa eskatu, hondakinak BEHAR BEZALA BANATZEKO, eta ezohiko hondakinak non biltzen diren galdetu.

KONPONDU BETE SAIHESTU MURRIZTU BERRERABILI KONPOSTA EGIN



Belaunaldi berriei ohitura onak irakasten badizkiegu, etorkizuneko etxeko hondakinen sorrera murriztuko dugu nabarmen.

Erosketa iraunkorra

- Beharrezkoa baino ez erosi. Aldez aurretik zerrenda egitea oso erabilgarria izango da, oharkabean ez erosteko. Beharrezkoa ez dena baztertu edo saihestu.
- Etxera iritsitakoan, produktu galkorrak ondo antolatu, kontsumitu baino lehen alferrik ez galtzeko. Kontsumituko ez duzuna oparitu.
- Ontziratutako produktuak erosiz gero, BERRERABILTZEKO edo ITZULTZEKO ontziak aukeratu beti.
- Ez kontsumitu ERABILI ETA BOTATZEKOAK diren produktuak, ezta BILGARRI GEHIEGI DITUZTENAK eta birziklatu ezin diren ontzietan datozenak ere.
- Ontziratutako produktuak erosiz gero, BERRERABILTZEKO edo ITZULTZEKO ontziak aukeratu beti.
- POLTSA eraman etxetik edo erosketetarako orga erabili. Ahal dela, ez erabili inolako zentzurik gabe ez plastikozko poltsarik ez beharrezkoa ez den bilgarririk.
- Betiko saltegietara joan (udal-azokak...), bertako produktuek hainbeste bilgarri ez daramatelako. Bestela, zeure ontziak eraman eta behar duzuna erosi soltean.
- Ez erosi erabili eta botatzeko pilarik. Kargatzeko pilak erabili.
- Ez erabili produktu toxiko eta arriskutsurik.
- Behar beste denbora hartu, erosketa osasungarriagoa eta garbiagoa egiten ikasteko. Informazioa eskatu eta adi-adi begiratu etiketei.
- Birziklatutako eta berrerabilitako produktuak aukeratu (ontziak, papera...), baita birziklatu eta berrerabili daitezkeenak ere.
- Produktuen bizitza luzatu: tresnak, objektuak, ondasunak...



2

HONDAKIN BAKOITZA BERE BIDETIK

Hondakin bakoitzak bere bidea du. Zure esku egongo da norabide egokirantz joatea. Batzuetan, nahikoa izango da keinu txikia egitea naturari kalte handirik ez sorrarazteko..


| | | |
|---|--------|---|
|  ORGANIKOA | ✓ ✗ | Sukaldatutako edo sukaldatu gabeko landare-jatorriko hondakinak, ogi-apurrak, goxokiak, paperezko ezpainzapiak, kafe-hondarrak, infusioen zorrotxoak, kortxo naturalak, lorezaintzako hondakinak.. Haragiak, arrainak, itsaskiak, gorozkiak, kortxo sintetikoak, ontziak, pixoihalak, konpresak, esnekiak, arrautza-oskolak... |
|  PAPERA/KARTOIA | ✓ ✗ | Egunkariak, aldizkariak, telefono-gidak, propaganda, orriak, liburuxkak, zenbait produkturen kartoizko ontziak (garbigarriak, arrautzak, gailetak, zerealak, oinetakoak...).. Paper zikinak, pixoihalak, brikak, aluminiozko papera, paper plastifikatua, argizari-papera, paper metalizatua... |
|  PLASTIKOAK/ONTZIAK | ✓ ✗ | Brikak, latak, botilak, janarien eta garbigarrien plastikozko ontziak, plastikozko poltsak, potoetako estalkiak, "porexpanezko" erretiluak (poliestireno hedatua), elikagaietarako filma, spray ez-toxikoak.. Jostailuak, zinta magnetikoak, eskuilak, pertsianak, pvc-zko hodiak, zartaginak, eltzeak, mahai-tresnak, etxetresna elektrikoak... |
|  BEIRA | ✓ ✗ | Edarien botilak (ardoak, garagardoak, zukuak, pattarrak, freskagarriak...), janarien potoak (kontserbak, marmeladak, olibak...), kolonien potoak, kosmetikoen potoak.. Bonbillak, fluoresenteak, ispiluak, leihoetako kristalak, autoetako beirak, kristalezko baxerak, sendagaien potoak... |
|  OLIOA | ✓ ✗ | Sukaldeko olioak (frijitzekoak ere bai). Beste olio batzuk (autoak, makinak...), koipeztagarriak... |
|  PILAK | ✓ ✗ | Pila alkalinoak, gatzeko pilak, botoi-pilak, litiozkoak.. Telefono mugikorretako eta argazki-kameretako bateriak... |
|  BERRERABILPENA | ✓ ✗ | Berrerabili daitezkeen objektu txikiak; esate baterako, arropa, oinetakoak, osagarriak, liburuak, jostailuak, bazarra, tresna elektriko eta elektroniko txikiak.. Baxerak, sendagaiak, etxetresna elektriko handiak, hondakin arriskutsuak, bonbillak, fluoresenteak, CDak, DVDak... |
|  SAILKATU GABEAK | ✓ ✗ | Beste era batera gaika bildu ezin diren hondakinak, besterik ez (pixoihalak, konpresak, eskuilak...). IZAN ZAITEZ ARDURATSU! Ez ezazu bota hemen beste era batera bildu daitezkeen hondakinak. |

Aholkutzak

- Multzoan biltzen diren ahalik eta hondakin gutxien sortzen saiatu.
- Beira baino ez bota birziklontzi berdean. Kontuz!: kristalak (kopak, edalontziak...) berun oxidoa daukanez, ezin da beiraren labe berean urtu (botilak, ontziak...). Bota baino lehen estalkiak kendu.
- Ontziak hutsik eta hondakinik gabe egon beharko dira, kirats gogaikarririk ez sortzeko.
- Kartoiak, brikak edo beste ontzi batzuk tolestu, leku gehiago egon dadin.
- Zeure udalerriko aukerei buruzko informazioa eskatu eta birziklatu!

GAIKAKO
BILKETAREKIN
HARTU
KONPROMISOA

HAIN OHIKOAK EZ DIREN BESTE HONDAKIN BATZUK

- **SENDAGAIK:** Bizkaiko botiketan, 400 SIGRE GUNE daude sendagaiak biltzeko (mugaeguneratuak, beharrezkoak ez direnak, kaxak eta ontziak). Erabili! **ERRADIOGRAFIK** ere botiketara eta osasun-zentroetara eraman ahal izango dira.
- **TINTEN KARTUTXOAK, TONERRAK, CDak eta DVDak:** zeure udalerriko bilketa-gunea bilatu. Halakorik ez badago, garbiguneetara eraman (Garbigune, Bilbogarbi...).
- Egunero darabiltzagun zenbait produktu arriskutsuak izan daitezke. Haien ontziak betiko moduan birziklatu ezin direnez, Garbigunera eraman beharko dira. Toxikoak direnez, ondorio larriak sortu ahal izango dituzte ingurumenean. Ahal dela, halakoak saihestu! 
- Produktu batzuetarako bilketa bereziak daude; esate baterako, etxeko toxikoak (pinturak, intsektizidak, garbigarriak...) eta tamaina handiko objektuak. Zeure udaletxean edo mankomunitatean galdetu nola bota ditzakezun.

GARBIGUNEA

Zure udalerriko gaikako bilketarako sistematik kanpo geratzen diren hondakinak garbiguneetara eraman beharko dituzu (Garbigune, Bilbogarbi...). Bertan bildutako guztia birziklatu, berrerabili edo balorizatu egingo da. Hondakinak dohainik utzi arren, zenbait arau bete beharko dira (kopurua, ordutegiak...). Informazioa eskatu!



BEHAR BEZALA BIRZIKLATZEKO GIDA TXIKIA

- | | |
|---|---|
| -  Aerosol ez-toxikoak | -  Pertzak, garbitzeko eskularruak |
| -  Alanbreak | -  Bizarra mozteko eta depilatzeke orriak |
| -  Kotoia | -  Espartzua |
| -  Katuen harea | -  Argazkiak |
| -  Azulejuak | -  Pixoihalak, tanpoiak eta konpresak |
| -  Poliespanezko erretiluak | -  Erabilitako mukizapiak eta ezpainzapiak |
| -  Boligrafoak, errotuladoreak, markagailuak | -  Aluminiozko papera |
| -  Plastikozko poltsak | -  Paper plastifikatua |
| -  Bonbillak, fluoreszenteak | -  Eranskailuak |
| -  Txingar eta errauts hotzak | -  Ilea, bizarra eta margotu gabeko azazkalak |
| -  Kafea eta txikoria | -  Telefono mugikorretako bateriak |
| -  Eltzeak, zartaginak, lapikoak | -  Post-itak |
| -  CDak eta DVDak | -  Fruten eta barazkien sareak |
| -  Zeloak, zelofana, karrozari-zinta | -  Infusioen zorrotxoak |
| -  Eskuilak, orraziak... | -  Potoetako estalkiak |
| -  Txikleak, litxarrerriak | -  Jogurten estalkiak eta ontziak |
| -  Txupeteak, tetinak | -  Telefonoak, tabletak, kargagailuak |
| -  Zigarroak, zigarro-hondakinak | -  Tiritak, bendak... |
| -  Bideo-zintak | -  Baxera (platerak, kizarak...) |
| -  Kortxo naturala | -  Oinetakoak, poltsak, motxilak, gerrikoak |
| - Kortxo sintetikoak | |

 Plastikoa /Ontzia

 Garbigunea

 Sailkatu gabea

 Organikoa

 Papera/kartoia

 BERRERABILPENA

3

PARTE HARTZEKO ESPERIENTZIAK

Bizkaiko Foru Aldundiak behar besteko programa jarri du abian, kontsumo arduraturako ohiturak modu aktiboan eta borondatez sustatzeko asmoz. Era berean, tokiko edo talde pribatuek sustatutako beste ekimen batzuk ere badaude bertan parte hartzeko. Informazioa eskatu! Ziur interesgarriren bat aurkituko duzula.

Aktibatu + Programa



Aktibatu + Programan parte hartu. Ideia bakunak eta ekintza erabilgarriak oso lagungarriak izango dira kontsumo arduraturako ohiturak bereganatzeko orduan, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko orduan eta planetan dauzkaten ondorio kaltegarriak gutxitzeko orduan. Oso erraza da, eta, horrez gain, etxeko nahiz tokiko ekonomia ere sustatzen da!

Autokonpostgintzan eman izena

Autokonpostgintzaren bidez, hondakina etxean bertan edo tokiko konpostegi bateratuetan kudeatuko denez, kasuan kasuko tratamendutegirainoko garraioak sortutako eragina ekidin ahal izango da.



Zeure irudimenari eragin

Gaur egun, hainbat eta hainbat ideia daude, gure hondakinen bizi-zikloa hobetzeko... Zeure sormena suspertu berrerabiltzeko arteaz! Saiatu eta proba egin!

BirzikLARTE

Berrerabiltzeko eta birziklatzeko artea

Hondakinak baliabide bihurtu daitezke... edo benetako artelan..., nahi izanez gero.

Txikienekin jolasteko zenbait sekretu ezagutu!



ERREZETA
PROBETXUA
ATERATZEKO ETA
ON EGIN DELZUN



PATCHWORKa
egiten ausartu



Nora doaz hondakinak?

Sorlekua > Berreskurapena > Transferentziategiak > Saillkapenerako instalazioak > Birziklatzaileak edo balorizazio gileak

Honako hauxe proposatzen da Bizkaiko Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean: lehen eta bigarren mailako hondakinen %60ren **balorizazio materiala** (birziklapena, konpostgintza, aurretratamendu mekaniko biologikoa), %38ren balorizazio energetikoa, lehen mailako hondakinen zero isuria eta bigarren mailako hondakinen %2ren isuria.



Nora doaz garbiguneetara daramatzagun hondakinak?



Elikagaien hondakin organikoak Bizkaiko Konpostegira eramaten dira, konpost edo kalitate handiko ongarri organiko bihurtzeko.

Ekonomia zirkularrerantz

Gure ekonomiako sistema lineala (erauzketa, ekoizpena, erabilera eta ezabapena) aldatu beharra dago bete-betean. Ekonomia zirkularra sustatu beharra dago, hau da, honako helburu hauek dituen kudeaketa-sistema berria: baliabide naturalen erabilera murriztea, hondakinen sorrera gutxitzea eta ahalik eta hondakin gehien lehengai bihurtzea.

Ezer ez botatzeko eta guztiari onura ateratzeko kudeaketa-eredu berria

i

Gehiago jakiteko

Informazio interesgarria

- ↘ Hondakinak. Bizkaiko Foru Aldundia
- ↘ Hondakinak. Eusko Jaurlaritzza
- ↘ Bizkaiko Hiri Hondakinen Behatoki Iraunkorra
- ↘ Garbiker
- ↘ Zabalgarbi
- ↘ BZB- Bizkaiko Zabor Berziklategia
- ↘ Berziklatu
- ↘ Bizkaia21eko Kli! Kla! Birzikla! material didaktikoa
- ↘ Infografia. Etxeko birziklapena
- ↘ Infografia. Konpostgintza
- ↘ Infografia. Hiri-hondakin solidoak
- ↘ Biok ekimena. Publizitateko lonen berrerabilpena
- ↘ SIGRE. Sendagaiak eta ingurumena
- ↘ Ecoembes
- ↘ Ecovidrio

Arautegia

- ↘ 2005-2016ko Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala
- ↘ 2010-2016ko Bizkaiko Hiri Hondakinen Prebentziorako Plana
- ↘ Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea
- ↘ Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua
- ↘ 2020ko Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako Plana
- ↘ EAEko Hiri Hondakinen Plangintza eta Kudeaketarako Gidalerroak

MURRIZTU, BERRERABILI, BIRZIKLATU,
BALORIZATU...

Zure esku dago. Gogoan izan borondate txikien baturak baduela gure planetaren patua aldatzerik.

